

IDEIA

Bi taldekideen arteko elkarrizketa batetik sortu zen ideia. Bietako baten etxean gatazka eduki zuten gurasoekin, argia piztuta usteagatik. Hori dela eta kalean aurkitzen diren farolei buruz hasi ginen hizketan. Biok ados ginen argindar kopuru handia desaprobetxatzen zela urtean zehar, batez ere gauetan, eta hainbat lekuetan.

Tabernetako komunitan oinarrituz, ideia hori kaleetara eta beste hainbat guneetara eramatea bururatu zitzaigun, diru kopuru handia aurreztu daitekeelako.

Tabernetako komunitan adibidez, arazoak izaten ditugu argiaren botoia bilatzeko, beraz guk burututako sentsoreak jarriko bagenu, komunean igarotako denboran horretan, pertsona sartu orduko argia piztuko litzateke eta barruan egondako denboran argia piztuta mantenuko litzake. Gero komunitik atera orduko argia itzali egingo litzateke, sentsoreak ez lukeelako mugimendurik nabarmenduko.

Beraz gure ideia honako hau izango da: kalean zein beste leku batzuetan dirua aurrezteko intentzioarekin argindarraren kontsumoa murriztuz irabaziak lortzea da. Hau gauzatzeko, sentsore batzuen bitartez, mugimendua detektatuz argia piztuko litzateke eta mugimendurik ez balegoke gune hori argi gabe aurkituko litzateke. Modu honetara, dirua aurreztuko zuten bai udaletxeak eta baita leku pribatu horien arduradunak ere.

Gure enpresak egingo duena sentsoreak ezarri argia aurreztu nahi den guneen sarreretan eta seinaleen bidez sentsoreen berri emango dute panel batzuk.